

ORDIZIA ▶ GIZARTEA



Oianguko proiektuak parkeak egun duen itxura aldatuko luke. GOIERRITARRA

Oianguko proiektuari buruz erreferenduma egiteko eskatu du EBk

Goierri Beheko Ezker Batua Berdeak-ek Oianguri buruzko erreferenduma egiteko proposatu dio Ordiziako Udalarari

ION MUÑOA

Ordiziako Oianguko parkerako Ikena enpresak aurkeztu zuen proiektuaren eta haren garapeneren aurrean, Goierri Beheko Ezker Batua Berdeak «kezkatuta» azaldu da. Eta horregatik, gaiaren gaineko bere ikuspegia plazaratu du. Horre-

lako proiektu batean herritarren iritzia oso garrantzitsua dela uste du ezkerreko alderdiak. Hori dela eta, Ordiziako Udalarari herri erreferenduma egin dezan eskatu dio. Modu horretan ordiziarrek beren iritzia emateko aukera izango baitute. Horrez gain, Oiangurako ideiak aurkezteko lehiaketa

ireki bat egitea ere proposatu dio Udalarari, jendeak parkearen etorkizunerako iradokizun berriak egin ditzan.

Ezker Batua Berdeak-ek dio «interes publikoaren alde egiten duela pribatuaren aurrean». Eta era berean, ingurumenaren defentsa «ezinbestekoa» dela azpimarratu du. Izan

ere, proposatutako proiektuak ingurumenaren aldeketa handia ekarriko lukeela gogoratu du. Horregatik guztiatik, «bizilagunek parkearen eta bere erabileraren erabakietan parte hartzeko eskubidea dutela» uste du alderdiak eta horretarako, erreferenduma da bidea beren iritziz.

Ezker Batua Berdeak-ek adierazi du «guztion artean, Oiangun, gaur egun egiten diren erabilerak eta parkearen inguruak hobetzea lortu behar da». Horretarako herritarrek parte hartzea behar-beharrezkoa da.

Ingurumena defendatzeko beharraz gain, alderdia lehen sektorea babestearen alde ere azaldu da: «Oianguko proiektu honek bete-betean eragiten dio eta horregatik beharrezkoa da lehen sektoreko aktibitatea mantentzen eta hobetzen saiatzea».

Ordiziarrei barkamena

Bailarako Ezker Batua Berdeak-ek barkamena eskatu nahi die Ordiziako herritar denei. Izan ere, Ordiziako Udalean alderdiko zinegotzia dena ez zen joan den martxoaren 30ean egin zen Udalaren osoko bilkuran egon.

Bertan Oiangu Bizirik plataformak oraingo proiektuaren aurkako mozioa aurkeztu zuen. Alderdiko zinegotzia bilkurara joan ez zenez, Ezker Batua Berdeak-ek ez zuen mozioa babesterik eduki. Eta horregatik ordiziar denei barkamena eskatzen die alderdiak.

Ildo berean, Goierri Beheko Ezker Batua Berdeak-ek Oiangu Bizirik plataformak aurkeztutako mozioa «interes handikoa» dela adierazi du. Eta horregatik, mozioaren alde dagoela argitu du alderdi ezkerriarrak.

BEASAIN ▶

BKL-CAFek 72 eta 60 hartu du mendean DKS taldea

Beasaingo saskibaloitaldeak emaitza onak lortu ditu asteburuan maila guztietan

I. MUÑOA

BKLko seniorrek asko landutako garaipena lortu zuten Donostiako DKS taldearen aurka. Deskantsura arte partida orekatua joan zen, baina azken bi laurdenetan beasaingarrek egindako defentsa onari esker, 18 puntuko aldea lortu zuten. Azkenean, 72-60 BKL nagusi.

Junior mutilek 73-58 irabazi zieten Cafés Aitana Bko-i partida eroso batean. Junior neskek izan ziren asteburuan galdu zuten bakarrak. Partida nahiko ona jokatu arren, 22-38 galdu zuten Aldapeta Aren aurka. Gainontzeko taldeek irabazi egin zituzten euren lehiak: Kadete mutilek 66-52; kadete neskek 45-52 eta infantil neskek 30-53.

BEASAIN ▶

Raul Piñeirok irabazi du jaietako kartel lehiaketa

I. MUÑOA

Raul Piñeirorena izango da aurtengo Loinatz Jaietako egitarauaren azala. Marifista izeneko lanarekin irabazi du 2006ko Loinatz Jaietako kartel lehiaketa. Festetako egitarauaren azala aukeratzeko kartel lehiaketa antolatzen du urtero Udaleko Kultur Batzordeak eta aurtan Raul Piñeiroren lana saritu dute.

iragarki laburrak ▶

LANA


Neska. Asteburuetan tabernan lan egiteko neska behar da.
646 787 507.

EROSI

Terrenoa. Zuhaitzekin terrenoa erosten da.
615 741 906.

GURE ESKUBIDEEN ALDEKO
KONPROMISO SENDOA

EUSKAL HERRIA, NAZIOA



“Euskal Herriko herritar guztiek, hala nola geroko belaunaldiak, euskaraz bizitzeko eta gaitzeko eskubidea daukate, nola memaketa gabe.”

EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ANKITA

APRILAK 16
ABERRI EGUNA 2006

GAIZAK
HERRIETAN EKITALDIAK

EUSKAL LEHEN
EKITALDI NAZIONALA

IRUÑEAN

ANAIAMUNA 1911 IRIBI BILGIV

UDALBILTZA